

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BILERA**

2020-12-02 Vitoria-Gasteiz 02-12-2020

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Egun on eta eskerrik asko gurekin izateagatik.

EUSKARALDIA amaitzear dela eta EUSKARAREN EGUNAREN bezperan osatzen dugu Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordea. Legealdi berri honen lehen bilera izango da. Beraz, lehen hitzak Batzordeak orain arte egindako lana aitortzeko eta eskertzeko izango dira.

Covid 19-aren egoerak baldintzatzen du lehen bilera hau. Eragina du, baita ere, euskaren biziberritzean eta erabilera prozesuetan. Argi dago, euskaraz hitz egiteko eta ikasteko aukerak gutxitu zaizkigula azken hilabete hauetan. Edonola ere, euskarari BIZINDARRA ematen jarraitzen dugu.

Gaur aurkeztu dugun Adierazpena adostasun osoz eraikitako Adierazpena da. Erakundeon adostasunetik diogu gizartea berritzeko BIDE ETA AUKERA BAT dela euskara: “euskaraz egin behar diogu aurre mundu mailako krisiari”.

Argi dugu krisi txiki nahiz handiei erantzuteko aukera berriak ematen dizkigula euskarak.

Euskarak batu egiten gaitu, euskara integratzaileko gonbidapena da, berritzailea da eta beti jartzen gaitu etorkizun OPARO baten miran.

Erakundeek, gizarteak eta gutariko bakoitzak egindakotik egingo dugu aurrera euskararen biziberritzean; eta horretako helduleku nagusia AUZOLANA izango da. Beti bezala.

Azken hitzak ere eskerrak emateko izango dira. Eskerrak egoera honetan Aholku Batzorderako proposamena jaso eta ONARTU duzuen guztioi; eta animoak, bide honetan beharko ditugulako.

Adierazpenean esan dugun moduan: “erabili dezagun euskara AURRERA EGITEKO lanabes gisa”.

Eskerrik asko guztioi